



EITB: beharrezkoa eta posiblea, baina borondatea falta

Jada bi urte baino gehiago igaro dira zilegitasunik gabeko hauteskunde autonomikoetatik sortutako gobernuak EITBko lehari begiratu zionetik. Orduan LABen genuen susmoa zalantzen artean kaleratu genuen, eta gaur egun zalantza haiek oraindik ez dira argitu. Hau da, gobernu honek benetan EITB behar edota nahi al du? Kudeaketa akatsak akats soilak dira, ala diseinatutako hondoratzeko estrategia bati erantzuten al diote? Zein dute azken helburua, baldin badute? EITBn ere ba al dago inor leman?

LABek azken urteotan antzemandako akats larrienak zerrendatzen saiatuko gara hemen. Ez dago sailkapen irizpiderik, eta seguru diren guztiak ez badaude ere daudenak badira.

LAN POLTSA

2003 urteko zuzendaritzarekin lan poltsa sistema adostu zen ETBko negoziazio kolektiboaren testuinguruan, hainbat kontu tekniko zehazteke gelditzen zirela. Zuzendaritza honek ere, "garrantzi handiko" gaitzat harturik, lehenbailehen martxan jartzeko konpromisoa hartu zuen lehen egunetik. Udaberrirako dagoeneko bi aldeek testua onartu bagenuen ere, aitzaki-maitzaki sinatu gabe jarraitzen du. Horrela, langile eta sindikatuok kontratazioen kontrolerako tresna garrantzitsu gabe jarraitzen dugu. Aipagarria da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ia urtero ateratzen duen txostenean, arazo hau, eta zuzendaritzaren aitzakiak errepikatzen direla. Hau da, EITBko kontratazio prozeduran ez direla zaintzen merezimendu, ahalmena eta publizitate printzipioak. Aipagarria ere konpromisoa hartu zuen zuzendari-kudeatzaile berria hain

zuzen ere Epaitegi horretan egona dela EITBra iritsi aurretik, kritika horiek sinatu izan dituen alegia.

MIRAMON

Miramongo egoitzaren egonkortasuna beti izan da LABen kezka, ez ordea zuzendaritza honena. Jada duela bi urte sartu berria zela, zuzendariak aurreneko bileran dagoeneko "lehenetsun artean" ez zegoela onartu zigun eta. Izandako azken bileran aho beretik irtenakoa ere oso kezagarria da: «komiteak informazio hobea duela berak baino». Aurreko zuzendaritzak inbertsioak egin bazituen ere, kudeaketa garaian jaramon handiegirik ez ziola egin onartu beharra dago. Beti benetakako bururik gabe egon da, lurretatik orduan eta Bilbotik orain, urrutiko kontrolaren bidez kudeatuta. EITBk funtzionatzen badu langileok inertziaz lan egiten dugulako da, eta arazoa are argiago ikusten da Miramonen. Zentzurik gabe lan karga hustu egiten da, ekoizpenak kanpoko enpresei ematen zaizkien bitartean. «Gaur egun eramaten dena», zuzendaritzak dixit. Benetan zentzurik gabe, ala estrategia bati erantzuten dio?



GREBA ESKUBIDEAREN URRAKETAK

ste hauetan TSJPV delakoak sententzia aterako du, iazko urtarrilaren 27an gehiengo sindikalak deitutako grebaren aurrean zuzendaritzak izandako jokabideagatik. Jaurlaritzak ezarritako gutxieneko zerbitzuak gairitu egin zituen, greba egin genuen langileon eta euskal jendartearen eskubidea urratuz.

KONTRATU MERKANTILAK

Aurreko zuzendaritzak egindako akats larria oraindik ere ez du konpondu zuzendaritza honek. Parlamentuak onartzen duen plantilla nahikoa ez zenez (honetan langileok bat gatoz), lege iruzurra egin zuten. 150 kontratu merkantilizatu edo "autonomofaltsu" bihurtu zituzten. LABek egindako salaketa juridiko-instituzionalak alferrikakoak izan ziren, eta karanbola bat medio, Gizarte Segurantzaren ikuskaritzak antzeman zuen iruzurra.

Egia bada ere kontratu horiek guztiak ez direla egiturakoak (kolaborazio edota programa puntualak kasu), ez gatoz bat zuzendaritzak amortizatu nahi duen kontratu kopuruarekin.

ORGANIGRAMA EDO KUDEAKETA POSTUAK

Langileen ordezkariok eskarmentua dugu dagoeneko, zuzendaritza aldaketa bat dagoenean entzun beharrekoak entzuten. Horrela, 2.000 urtean dagoeneko Andoni Ortuzarrek in lehen bilera izan genuenean entzundako lehenengoetariko konpromisoa hau izan zen, «organigrama handiegia da, eta asko hustu behar da». Orduan organigrama 80 pertsonen osatzen zuten, eta 2007an... 125!!! Zuzendaritza berria etorri, eta organigrama 126 pertsonetara "jaiatsi" du.

Aurreko zuzendaritzak ez zuen soilik kudeaketa postuak handitu, baizik eta formula aurreratzailerik asmatu zuen. Horrela, 70 bat kontratu lan hitzarmenetik atera zituen, kudeatzaileen lan harremanak eta sariak desregulatuz eta indibidualizatuz:

- Kudeatzaileak ez daude lan hitzarmenaren babespean.
- Langileen ordezkariok ez dugu kontratu horien informaziorik, ezta lan baldintzena ere.
- Halere, hauteskunde sindikaletan bozkatzeko eskubidea dute.
- Murrizketen inguruko "Tableronde" txosten ospetsuaren arabera, gehien kobratzen duen kudeatzailearen soldata (126 direla dio) urtean 118.000€ baino gutxiagokoa omen da. Zuzendari Nagusiaren soldata 90.000€ ingurukoa

omen denean aurrekontuen arabera. Aipagarria murrizketen inguruan zehaztasunez beteta dagoen txosten horrek figura honekiko duen xalotasuna ("40-50 murriztu daitezke baina eragin ekonomikorik ez...").

- Hainbat kasutan kontratu horiek iruzur egiteko erabili izan dira, LABek salatu izan duen bezala. Hau da, ordezkapen kontratua dutenek ez dituzte titularrek utzitako kategoriak ez eta funtzioak ere betetzen kasu askotan.
- Ez dira meritu-ahalmena-berdintasuna printzipioak betetzen, eta zer esanik ez euskararen ezagutzaz ari garenean.

Zuzendaritzak hitza jan du beraz, sistema honekin amaituko zuela agindu zuenean eta arazoak okertu baino ez du egin.

DISPONIBILITATEAK

Lanaldi eta ordutegi malgutasuna ordaintzeko erabili behar den kontzeptu hau oso modu okerrean erabiltzen ari da kasu askotan. Ordutegi eta lanaldi finkoa edukita ere hilean 10, 20 edo 20 puntuko (200, 400 eta 600€ hurrenez hurren) gain sariak ordaintzen ari dira zentzurik gabe, esan bezala kasu askotan.

MURRIZKETAK

«Eusko Jaurlaritzak dio dirurik ez dagoela, baina zer kasualitate gurea falta zaiela». Euskal jendartearen oroitzapenera Gozategi taldearen kanta behin eta berriz etortzen zaigunean, EITBko langileoi ere bai. Arestian aipatu bezala, organigrama handitzen, langileoi soldatak murrizten dizkiguten bitartean, bankuen krisia arintzeko. 2010ean soldatei %5a kendu, 2011n jaiatsiera mantendu, eta dagoeneko 2012rako euro bat gehiago ez dugula ikusiko aurreratu du zuzendaritzak.

Egiturako plantilak adosteko borroka egin behar izan dugu aurreko hitzarmenen negoziatioetan. Hori ere alde bakarrez deuseztu nahi dute irtenbide "ez traumatikoen" bitartez. Eufemismoaren atzetik ezkututzen dena plantila estrukturala hustea da. Kudeatzaileez bakarrik osatutako egitura minimoa utzi, eta lana azpikontratatu. Eredua ez da berria



administrazioetan, eta norabidea horruntz apuntatzen dute, ez eta EITBn ere. Aurreko zuzendaritza izan zen EITBNET eredu sortu zuena, hoguei bat kudeatzailerekin, eta 70 inguru langile azpikontrataturik, lan baldintzak arautu gabe.



HITZARMENAREN NEGOZIAZIOA

Aurtengo negoziazio kolektiboa ez da samurra izango, aurreratu dugun bezala. Zuzendaritzak dagoeneko joko eremua markatu nahi du krisialdiaren aitzakipean: hobekuntza sozialen bat eskatu nahi badugu, eskatzeko, baina euro bat ere suposatzen duen ezer ez dutela emateko asmorik.

Langileon dirua bankuei emateko estrategiari ezetz esaten aritu da LAB bere aldetik zein gehiengo sindikalarekin batera. Aurten ere sektore publikoa husteko estrategiarekin datoz gobernua, eta aurrekontuak dagoeneko murrizketen norabidean prestatzen hasiak dira. Lakuako Mahai Orokorraren negoziazioa ere laster izango da, eta zuzenki eragiten ez badigu ere, ondorioek (negatiboak beti ere) praktikan bai bete-betean jotzen gaituztela.

Arreta berezia emango diogu datozen asteotan negoziazio kolektiboari plataformak eta estrategiak prestatzen. Informatzen jarraituko dugunez, soilik aurreratuko dugu LABek ez duela murrizketarik onartuko, hain zuzen ere sektore publikoa indartu behar den garaian.

JENDARTEARENGANDIK GERO ETA URRUNAGO

PPrekin legegintzaldiaren hasieran hartutako konpromiso hau bai, betetzen ari dira. Gero eta zabalagoa den euskal jendartearen zati garrantzitsu bati muzin egin diote printzipio politiko batean oinarrituta. Kalitateko Telebista Publiko bat aztertzekeo garaian audientzien datuez hitz egitea gogoko ez badugu ere, datu

adierazgarria bada behintzat. Are gehiago datu horien bilakaera negatiboak.

Egun hauetan oso entzuna izan da RTVEko albistegiak kontrolatzeko edo zuzenean aurretik zentsuratzeko saioaren lotsagabekeria. Gogora dezagun ETBn iaz izandako komeriak, zeharkako zentsura eta autozentsura nahikoa ez dela eta, zentsura zuzena ezartzen saiatu zen zuzendaritza.

LABeko Ipar Hegoa eta Baietz fundazioek Aztiker enpresari enkargatutako azterketen emaitzak ere hor daude jendarteak EITBri zergatik ihes egiten dion garbi adierazteko. Dagoeneko hirugarren gaiaren ondorioak kaleratu dira, informazio sozioekonomikoaren trataerarenak alegia; eta udaberriaren bigarren txostenaren ondorioak kaleratu genituen, generoaren trataerarenak. Guztiak webgunean daude, eta gogoeta hauek guztiak langileekin eta jendartearekin konpartitzeko ekimena prestatzen ari gara dagoeneko.

Informazioaren trataerak, bai generoaren zein sozioekonomiaren ikuspuntutik, ez du alde handirik EITBren leman zegoen aurreko zuzendaritzarenarekin. Beste kontu bat da PSE-PPk egiten ari diren EITBren erabilera partidista eta espainolista nabarmena, eta horrek uxatzen du audientzia, ez ordea digitalizazioaren aitzakiak.



TABLERONDE TXOSTENA

Kultura sailak Madrilgo enpresa bati egindako enkargua da hau, eta bertan hainbat murrizketa larri iradokitzen dira EITBn egiteko. Bertako errealitate soziala, kultural eta linguistikoa ezagutzen ez duen kanpoko txosten honek akaso azterketa sakonagoa beharko luke, baina irakurketa azkar batetik atera daitezkeen zertzelada batzuk hauek izan daitezke:

- Martxan jarri ezkerro suposa dezakeen larritasunagatik ez balitz, barregura emango luke. Jaurlaritzak txosten honetan 20.000€ alferrik bota ditu, ez baita batere txosten serioa. Ez bada txosten justifikatzaile tipiko bat, hau da, emaitzak alde aurretik enkarguan zehaztuta daudela, eta nolabait apaindu egin behar dela santua. "Motoa saltzeko" txapuz galanta, eta errealtatetik oso urrun.
- Telebista zein Irratiko euskarazko kateak beharrezkoak diren zalantzan jartzen da.
- Digitalizazioa oraindik heldu beharreko erronka bezala aipatzen da.
- EITBekin zerikusirik ez duten Estatu espainoleko beste kate autonomikoez gain, Antena 3 eta Tele 5ekin konparatzeko joera du behin eta berriz.
- EITBn hiru hitzarmen soilik egonik (EITB, ETB, EI) Lantoki eta aktibitate bakoitzeko lan hitzarmen bana dugula baieztatzen da.
- Bitxia da soldaten abanikoa eta kopurua justifikatzeko modua. Legez administrazioetan txikienetik handienara 1/3koa gainditu ezin denean, kudeatzaileen soldatak "adostutako ordainsaririk handiena Taldearen batez bestekoaren (59.000€) bikoitza baino txikiagoa" dela dio.
- Dagoeneko EITBn lanean diharduten behin-behineko ia langile guztiak ordezkapen kontratua dute. Nola murriztu daiteke zero bat?

Bestetik, hauek dira epe motzean eta luzean hurrenez hurren iradokitzen dituen neurriak:

- Epe motzean: "Dimensión de plantilla, centros de trabajo, presencia internacional, horas de emisión."
- Epe luzean: "Amortización de puestos, modelo organizativo, externalización de servicios, modelo comercial, modelo de televisión, costes de producción, posicionamiento tecnológico"

Eta ekinbiderako lau arlo hauek azpimarratzen ditu:

- Redefinición organizativa y de procesos (besteak beste Miramon itxi, 150 langile kalera, irratia batu, erredakzio bakarra, polibalentzia... "EITB Noticias" sortu)
- Externalización de actividades
- Redimensionamiento de la plantilla
- Adecuación del modelo de televisión

LABen PROPOSAMENA

LABek ez du aitzakiarik onartzen murrizketak justifikatzeko. Krisi finantzarioaren aitzakiarekin egundoko murrizketak ematen ari dira jendarte zerbitzuetan, eta eman ezker ez dute bueltarik izango. Esan bezala, bankuen zuloak estaltzeko langileon eskubideak urratzen dizkigute. EITB ez dago salbu, are okerrago, aitzakia gehiago bilatzen dituzte murrizketei ekiteko. Horrela, euskal jendartearen beste eskubide sozial, kultural eta identitarioa izan beharko lukeena urratzeaz gain, kostu larrienak bertako langileok pairatzea nahi dute... modu "ez traumatikoan" suposatzen da.

- Langilerik ez dago soberan, kontrakoa baizik. Plantilla beste garai baterako diseinatua egotearen aitzakiak ez du balio, gaur egun emisio orduak eta medio kopuruak (ETB3, ETBSAT, ETB4, EITBNET...) handitu dira eta.
 - Kudeaketa publikoa aldarrikatzen dugu. Beharrian estrukturalak zehaztu, eta EITBko langileon lan kargak egokitu. Negoziorik ez diru publikoarekin ez eta langileen lan baldintzekin.
 - ETB-Miramongo barne produkzioa eta ustiapena handitu.
- Kontratazioan gardentasuna eta zuzentasuna. Lan poltsa jada sinatu eta balio juridikoa eman. Kontratazioen iruzurrak amaitu, eta behar izan ezker ere aurrekontu plantilla handitzea parlamentuan onartu.
- Euskal Herriaren zerbitzuan egongo den komunikabide publikoa. Euskara eta euskal errealitate sozial, kultural eta politikoaren mesedean.
 - Euskarazko kateei eta emanaldiei lehentasuna, aurrekontu propioekin. ETB4 euskaraz.
 - Irratian bezala, telebistako albistegiek agenda propioa landu dezaten zentro eta talde berezitua behar dute, Bilbon eta Miramonen banatuta. Euskarazkoek erdarazkoen menpe jarraitzen dute ETB2ren sorreratik bertatik.
 - Gasteizko jendarteak aspalditxo eskatzen ari den eta beharrezkoa duen euskarazko irratia eskaintza propioa bermatu, Gasteiz Irratiaren bidez.